

ALKATEAREN EBAZPENA

Alkatetza honek, 2022ko urtarrilaren 13ko Dekretuaren bidez, hiriko ostalaritza-establezimenduetako terrazen ordutegi, erabilera-baldintza, kokapen eta abarrei buruzko ezohiko eta premiazko neurri batzuk onartu zituen, aldi baterako eta salbuesenez, guztiak ere Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. h) artikuluan aurreikusitakoaren babesean.

Arau horrek ahalmena ematen dio alkateari, salbuesenez, beharrezko neurriak har ditzan, baita Osoko Bilkurak onetsitako udal-arauak aplikatu gabe utziz ere, aparteko eta presazko premia dagoenean, eta berehala osoko bilkurari horren berri emanaz.

Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik (2022ko otsailaren 14a) aurrera indarrean sartu ziren ezohiko eta premiazko neurri horiek, eta aurreikuspenen arabera, behar-beharrezkoa zen denboran soilik egongo ziren indarrean, Alkatetzak ez aplikatzeko agindua eman arte.

Kontuan hartuta gaur egun ostalaritzako establezimenduei buruzko murrizketa guztiak altxatu direla (tabernetako barran kontsumoa erabat irekitzea, edukiera kentzea eta mahai inguruan gehieneko kopurua mantentzea), une honetan bertan behera geratu da aparteko eta presazko beharrezko egoera, alkatearen salbuesenezko esleipen bat erabiltzea ahalbidetzen duena.

Horiek hala direla, hauxe da nire

EBAZPENA

Ondoriorik gabe uztea Alkatetza honen 2022ko urtarrilaren 13ko Dekretua (2022ko otsailaren 14an GAOn argitaratua), hiriko ostalaritza-establezimenduetako terrazen ordutegiei, erabilera-baldintzei, kokapenarie ta abarri buruzko ezohiko eta premiazko neurri batzuk aldi baterako eta salbuesenez onartzen zituena.

RESOLUCIÓN DEL ALCALDE

Esta Alcaldía, mediante Decreto de fecha 13 de enero de 2022, aprobó, con carácter temporal y excepcional, una serie de medidas extraordinarias y urgentes relativas a los horarios, condiciones de uso, emplazamiento, etc, de las terrazas de los establecimientos de hostelería de la ciudad, todas ellas al amparo de lo previsto en el artículo 124. h) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local. Este precepto habilita al Alcalde con carácter excepcional para la adopción de las medidas necesarias, incluso dejando sin aplicación las propias normas municipales aprobadas por el Pleno, en caso de extraordinaria y urgente necesidad, dando cuenta inmediata al Pleno.

Esas medidas extraordinarias y urgentes, que entraron en vigor a partir del día siguiente a la publicación del Decreto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (día 14 de febrero de 2022), estaba previsto que se mantuvieran vigentes exclusivamente por el tiempo estrictamente necesario y, en todo caso, hasta que por parte de la Alcaldía se decretase su inaplicación.

Teniendo en cuenta que a día de hoy se encuentran levantadas todas las restricciones relativas a los establecimientos de hostelería (apertura total del consumo en la barra de los bares, eliminación de aforos y del número máximo de personas que se pueden juntar alrededor de una mesa), por lo que en estos momentos se encuentra decaída la situación de extraordinaria y urgente necesidad que permite la utilización de una atribución excepcional del Alcalde.

Por todo lo expuesto, emito la presente

RESOLUCIÓN

Dejar sin efecto el Decreto de esta Alcaldía de fecha de 13 de enero de 2022 (publicado en el BOG el día 14 de febrero de 2022), por la que se aprobaba con carácter temporal y excepcional, una serie de medidas extraordinarias y urgentes relativas a los horarios, condiciones de uso, emplazamiento, etc, de las terrazas de los establecimientos de hostelería

de la ciudad.

Hori guztia Alkatetza honi aparteko eta presazko beharizana dagoenean neurriak erabiltzeko aukera ematen dioten baldintzak amaitzeagatik.

Todo ello por finalización de las condiciones que permiten a esta Alcaldía la utilización de medidas en caso de extraordinaria y urgente necesidad.

Donostia, 2022ko apirilaren 27a

Eneko Goia Laso
ALKATEA